



Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, DBH3 eta DBH4ko ikasleengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

NAHI DUDALAKO! BATXILERGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZKO IKASKETAK SUSTATZEKO KANPAINA

Bizkaiko 19 udalerrik eta 2 mankomunitatek parte hartu dute *Nahi dudalako!* ekimenean. DBH3 eta DBH4ko ikasleen artean zabalduko da kanpaina.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Aurreko urteetan bezala aurten ere Bizkaiko hainbat udalerrik abian jarri dute **Nahi dudalako!** kanpaina. Kanpainaren helburu nagusia da **DBH euskaraz egin duten gazteek hortik aurrerako ikasketak ere euskaraz egitea.**

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu duen proiektu honetan Bizkaiko 19 udalerrik eta 2 mankomunitatek parte hartu dute eta 15 eta 16 urteko gazteei zein euren gurasoei zuzenduta dago.

Hartzaileak

Egitasmoaren hartzaileak kanpainan parte hartu duten udalerrietako DBH3 edo/eta DBH4 ikasten ari diren gazteak eta horien gurasoak dira.

Helburua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailan ari diren gazteek hortik aurrerako ikasketetan ere euskarazko ereduak aukeratzea eta horretarako behar duten informazio guztia ematea, gazteei zein euren guraso edota orientatzaileei. Informazio hori www.nahidudalako.com web gunean dute ikusgai.

Parte hartzaileak

Bizkaiko 19 udal eta 2 mankomunitate. Guztira, honako 34 erakunde hauek:

Abanto-Zierbena • Arrigorriaga • Balmaseda • Basauri • Berango • Bilbo • Elorrio • **Enkarterriko Mankomunitatea** • Erandio • Etxebarri • Gordexola • Laukiz • Maruri-Jatabe • Muskiz • Ortuella • Portugalete • Santurtzi • Sestao • Trapagaran • Txorierriko **Mankomunitatea** • Zierbena

Kanpainaren edukia eta euskarriak

Kanpainaren ardatza www.nahidudalako.com web gunea da. Bertan gazteek **Batxilergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz** egiteko duten eskaintza zehatzaren berri jaso ahal izango dute. Gainera, **unibertsitateko euskarazko eskaintza eta gustuko karrera ikasteko zein batxilergo mota aukeratu behar duten** ikusteko aukera ere badute gazteek. Horrekin batera, DBH amaitu eta euskara ikasten jarraitu duten hainbat gazteren **testigantzak** ere jasotzen dira web gunean. Eurretan gazteek zergatik ikasi duten euskaraz azaltzen dute.

Gainera web gunean sartu eta inkestan parte hartzen duten gazteek hainbat sari irabazteko aukera izango dute, hala nola, **tableta, Nintendo 3 DS eta multi-abentura egun pasa.** Parte hartzeko



kanpainan parte hartzen duten udalerrietako batean errolatuta egon beharko da, eta udalerririk horretan diptikoa banatzen den mailaren batean ikasten.

Web gunearekin batera kanpainaren berri emateko **diptikoa** banatuko zaie kanpaina bultzatu duten udalerrietako gazteei eta gazteon gurasoek kanpainaren nondik norakoak azaltzen dituen **gutuna** jasoko dute etxean. Guztira, 6000 eskuorri banatuko dira Bizkaiko 34 udalerritan.

Horrekin batera gazteentzako hainbat **hitzaldi** ere antolatu dira, eurretan euskaraz ikastearen garrantzia nabarmendu eta www.nahidudalako.com web gunean zer aurkituko duten azalduko zaie gazteei. DBH3ko ikasleentzako hizlaria Jon Gómez abeslaria eta aurkezlea izango da. DBH4ko ikasleek berriz, Aitor Murgia ekonomialaria izango dute hizlari.